



# Harizko zubiak

Haiti, Pernambuco, Mexiko  
eta Tangerangko jasokinak

Jon Sarasua

Saio eta Testigantza, 254

978-84-9172-306-6

2022. urtea - 304 or. - 15x21 cm

21,00 €

Afari diplomatikoa 'gure' etxean. Hor daude denak saloian eserita txolarte gozoan. Europar Batasuneko enbaxadore anderea, Frantziako enbaxadorea, hezkuntza ministroa, Espainiako enbaxadorea, Tamara, Djeride, eta Masachusets-eko MITeko bi lagunak. Eskaileretatik jaisten ari naizela aurkeztu nau enbaxadoreak. Etxean bertan egon, eta ni azkena, brabo. Leonardo di Caprio Titanic-eko banketeko mahaira bezala jaitsi, eta ministroaren ondoan esertzea egokitu zait sofán. Afal aurretik koktel-aperitifa. «¿Qué te parece si hacemos el aperitivo en los sofás exteriores de la terraza y después cenamos dentro?» galdetu dit enbaxadoreak goizean. «Perfecto», esan diot, horretan irizpidea baneuka bezala.

Hau da beraz gauzak alda ditzakeen ministro bizkorra. Berehala bota du puntua:

—*Estoy deseando escuchar la experiencia del País Vasco.*

Aldarte onean gara, oraindik. Laster nahastuko da.

\* \* \*

Brasilgo Pernambuco, Mexikoko Puebla, Yucatan, Ipar Afrikako Tanger eta Haitira egindako lan-bidaietako testu laburrek osatzen dute *Harizko zubiak*. Bazter horietako gertakari txikien marrazki-sorta moduko bat da: hizkuntza-komunitate gutxituekiko harremanak, Haitiko egoera berezian izandakoak, Brasilen kantu inprobisatuaren munduan egindako loturak... Haitiarak, nahuatlak, maiak, amazighak edota pernambucarrak munduaren ikarez mintzo dira orriotan, eta euskararen herriaren galdegaiak ez dira beti urruti. Jasokinak ibilbidean jasotako puskak dira: egoerak, ekintzen apunteak, eta lehen pertsonan idatzitako gogoetak. Guztiaren atzean, eragileen arteko kontrabando ikusezina. Ekiteko modu bat. Eta ekinaren alboan, begiratzeko modu bat.



**Jon Sarasua**  
(Aretxabaleta, 1966)

Kultur sorkuntzan aritua da, eta 2000. urtetik aurrera alor publikoena alboratuta gai sozio-ekonomikoetan egin du lan unibertsitatean. Herri-gintzako hainbat alorretan taldeak sustatzen jardun du hamarraldi horretan, Lanki, Garabide, Sorguneak eta Bagara bezalako egitasmoen sorreran. Autoeraketa, gizarte-ekonomia eta hizkuntza arloak landu ditu egitasmo horietan, eta haiei lotutako nazioarteko zubiak. Hainbat argitalpen egina da kultur arloan eta gai sozio-ekonomikoetan. Pamiela-ekin, euskaltasunaren norabideaz *Hiztunpolisa* argitaratu zuen 2013an, eta *Bost truke* testu laburren bilduma 2015ean.

